



4. TXOSTENA

# **EAJ-PNV, BERE HERRIAREN ZERBITZURA DAGOEN ALDERDIA**

**EUSKAL  
HERRITARREKIKO  
LOTURAK**

**IX. BATZAR NAGUSIA - ASAMBLEA GENERAL**

## 1.- HITZAURREA

Arinkerien aurrean sendotasuna erakusteko garaia da. Alderdi sendoa gara, balio sendoek gidatzen dute gure ibilbidea eta gure zeregina. Euskal lurrari lotutako Alderdia gara, emakume eta gizon jantzi, zintzo eta konprometituek osatua. Baina zerbait aldatu da. "Gauzak ez dira horrela, gauzak horrela daude". Gorka Urbizu kantariak esaldi hau dio bere abestietako batean. Siplea, bai, baina egia borobila.

Sentimenduak ditugu oinarri, sentipenak ; ziur aski geure buruarekin zorrotzak izango gara. Txosten honen edukia ikusterakoan, "etsipena", "frustrazioa", "aldaketa", "belaunaldia", "balioak", "enpatia" eta "komunitatea" hitzak azaleratzen dira. Hitz guztiak ez dira sentimenduak, baina denek sentiarazten dute zerbait.

Txosten honetan geure buruari begiratzen, testuinguruan kokatzen, diagnostiko bat egiten eta, agian, konponbideak ausardiaz proposatzen saiatuko gara. EAJ-PNVk gizartean eta gizartearekin duen harremana berriz ebaluatzen. EAJ-PNVren erronka da, eta horretaz hitz egiten da txosten honetan, gizarte berri, heldu eta emozional hau aitortzeaz eta harekin berriro konektatzeaz. Errealitate hori ulertzea eta mezua leku horretan kokatzea dagokigu, haztea.

Trantsizio ekologiko, digital eta sozio-ekonomikoen gizarte globalak irauli dituzte, eta, jakina, baita euskal gizartea ere. Pandemiak eta haren kudeaketak erakundearen kudeaketaren, aurrekontuen eta gobernu-planen lehentasunak aldatzeaz gain, gizarte-balioei, herritarren lehentasunei eta haien bizimoduari ere eragin zien. Paradigma aldaketa bat eman da.

Lidergoak, boterearen kudeaketa, herritarrekiko harremana, transmititzen diren mezuak, denboraren kudeaketa, aisialdia, erantzukidetasuna, kontziliazioa, sororitatea, etab. Gizartean ia berriak diren kontzeptu horiek guztiak, gizartearen buru denak, bere emozioak, beharrak eta lehentasunak kudeatu nahi dituenak errespetatu, ulertu eta enpatizatu egin beharko ditu. Izan ere, hau da komunitatearekiko harremana: arazoan aurrean gertutasuna eta erantzunetan ziurtasuna; entzutea eta ulertzea, kontzeptu berriak ikastea, infantilizatu edo gutxietsi gabe.

Gizartea aldatu egin da, herritarren interesak aldatu diren modu berean. Aldaketa horiek ez dute justifikatzen eta ezin dute justifikatu EAJ-PNVk euskal gizartean duen posizionamenduan atzera egitea. Horrek aldatzera eraman behar gaitu: eraldatzera. Tinko egokitzapenean!

Txosten honen helburu nagusia da erakunde eta buru batzar mailako antolaketa politikoaren harremanak berregitea, bai eta alderdikideen jardun politiko indibidualari dagokionez ere, gizartean eta herritargoarekin (antolatua eta indibiduala), komunitatea eta haren balioak indartuz; egungo balioak eta balio etikoak.

EAJ-PNV dagokionez, gai izan behar dugu gizarte honek aurkeztzen dizkigun erronka horiei erantzuteko, herritarrekin konektatuz enpatiatik, balioetatik eta ekintza politikitik. Apaltasunez, baina erabakitasunez, iraganean egin dugun bezala, ez bakarrik oraingo beharrei erantzuteko, baita etorkizuna eraikitzeko ere.

## 2.- TXOSTENAREN HELBURUA

### 1. Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zenetik euskal gizarteak alderdiaren jardunbidean jarri duen konfiantza berrindartzea

**1.1 Euskal gizartearekiko harremana areagotzea**, honako hauek bermatuz: alde batetik, alde aurreko loturarik izan ez den espazioekin loturak ezartzea, eta, bestetik, EAJ-PNVren presentzia ahuldu egin den espazioak indartzea. Historikoki, EAJ-PNV aniztasuna bateratzen zuen oreka izateko gai izan da, desberdintasunak aitortuz, naturaltasun osoz; baina gaur egungo uneak eskatzen digu ahalegin bat egitea, pertsonak eta kolektiboak gure elkarrizketetatik kanpo uzten ari ez garela bermatzeko. Aniztasunari buruzko kontzientzia handiagoa eskatu behar diogu geure buruari; izan ere, jakin badakigu EAJ-PNV alderdi anitza den arren, ez duela zehatz mehatz egungo gizartea islatzen.

**1.2 Herritarren interesak hobeto ordezkatzeko.** Egungo gizartearen eskaerak eta beharrek islatu behar dira EAJ-PNVn, baina litekeena da modu aktiboan parte hartzen ez duten batzuek hala egitea, beren ikuspegiak Alderdiaren jardueran, diskurtsoan, lan-ildoetan edo irudian islatzen ez direla sentitzen dutelako. EAJ-PNVk, modu aktiboan entzuteaz gain, kontuan hartzen ez diren ikuspegiak integratzeko gai izan behar du, bere esentzia eta nortasunari leial izanik.

**1.3 Elkarte-, enpresa- eta gizarte-mugimenduekiko harreman-ereduak egokitzea.** Gaur egun, herritarren parte-hartzea arrazoi zehatzen inguruko ekintzak eta erreakzioak bultzatzen dituzten eruedetara bideratu da. EAJ-PNVk modu sistematikoan ulertu behar du parte-hartze modu aldakor eta aldagarri hori, ez mugimendu jakin batekin lerrotatuta, baizik eta kausa batekin edo batzuekin lerrotatuta, ondoren, modu arin eta dinamikoan, babesa eta baterako lidergoa behar diren espazio horiek identifikatzeko.

**1.4 Bira egitea kanal anitzeko harreman sendo baterantz,** trantsizio digitalak datuak erabiltzeari, biztanleriaren beharrak identifikatzeari eta dinamismoari dagokienez eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, eremu fisikoan edo analogikoan lan egiten den modu berean, harreman-espazio digitala hartuz. Era berean, EAJ-PNVk mugimendu politikoaren buru izan behar du, desinformazioaren eta buloien hedapenaren aurrean, elementu horiek krispazio politikoa eta gizartean atsekabea sortzen baitute.

### 2. Zentraltasuna berreskuratzea alderdi politiko transbertsala den aldetik gizarteari, ekonomiari eta belaunaldiari dagokienez, herriaren eta euskal nortasunaren baitan eta, horrela, Euskadik komunitate baketsu, askotariko, erresiliente eta kohesionatu gisa aurrera eramaten laguntzea

**2.1 Sendotasuna eta gaitasuna erakustea:** iraganean, EAJ-PNVk erakutsi du bera izan dela herri, gizarte eta politika krisiei hobekien erantzun diona. EAJ-PNVren lidergoari esker, Euskadik ekonomia industrialaren krisia garapen ekonomikorako aukera bihurtu du, eta, terrorismoa pairatu duen alderdietako bat izanik, bakerako bidea gidatu du. Gaur egun, eta batez ere etorkizunari begira, gertakari geopolitiko berriek sortutako ziurgabetasuna kontuan hartuta (gerrez gain, 2024a da maila

globalean hauteskunde gehien izan dituen urtea, eta horrek eragina izan du euskal enpresa-harreman komertzialetan eta herritarren moralean), ingurumenekoak (txosten hau idatzi bitartean *Dana* hondamendia gertatu da estatu espainiarraren ekialdean) eta digitalak (sare sozialak eta osasun mentalekin duten lotura, adingabeen babesa, zibersegurtasuna...). EAJ-PNVk erakutsi behar du ibilbide-orri egonkor, sendoa duela, estrategia argi eta profesionalaz osatua, Euskadi egungo trantsizioen bidez nabigatzera eramango duena. Betiere, egungo egoerak eta etorkizuneko ziurgabetasunak pertsonengan sortzen duten emozioarekiko errespetu handiz eta konfiantza eta segurtasuna transmitituz.

**2.2 EAJ-PNV humanizatzea** enpatiatik eta ekintza politikoaren eta harreman sozialaren hurbiltasunetik. Funtsezkoa da alderdi lagunkoi, hurbil eta garden baten zumeak berreskuratzea. Berdintasun-posizio batetik, gai dela entzuteko, ikuspegiak txertatzeko eta arrakasten nahiz akatsen berri emateko. EAJ-PNV aukera erreala da herritar guztientzat, herriaren Alderdia dela sentitu behar du.

**2.3 Gure balioak birformulatzea eta estilo propioa sustatzea,** eta EAJ-PNV eragile ordezkatzailerik, inklusibo, zentral eta argi gisa kokatzea, eta, batez ere, barnerako eta kanporako ezagutzeko modukoa izatea, aurreko elementuak kontuan hartzea eta EAJ-PNV estereotipotik erreferentzialtasunera mugiaraztea eragingo duena. Ezinbestekoa da EAJ-PNV beste alderdi politiko edo gizarte-mugimendu batzuek sortu eta hedatu duten iruditik bereiztea. Horretarako, estamentu guztien jarrera proaktiboa behar da, buru batzarrena, kargu publikoena, alderdikideena eta alderdizaleena.

### 3.- TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AURREKARIAK

1895ean sortu zenetik, EAJ-PNV indar politiko bat baino gehiago izan da. Autogobernu, identitate eta askatasun bila dabilen gizartearen helburu kolektiboak irudikatu ditu. Diktadurako urteetan zapalkuntza politiko eta kulturala erregimen frankistaren arma izan zenetik demokrazia eta egungo erronkak iritsi arte, EAJ-PNV aldaketa sozial eta politikoetara egokitzeko gai izan den erreferentzia izan da.

Diktadura frankistan, EAJ-PNVk funtsezko zeregina bete zuen euskal imaginario kolektiboaren artikulatzerakoan, herria eraikitzen bideratu baitzen. Erregimenak errepresio latza eragin zion Euskadiri, askatasun demokratikoak ezabatuz, buruzagi abertzaleak jazarriz edo beren identitate-elementuak debekatuz, hala nola euskara. Gizarte-kezkak isilarazteko testuinguru horretan, EAJ-PNVk euskaldunen nahien bitarteko nagusi gisa jardun zuen (bai klandestinitatean, bai erbestean).

Alderdi politiko bat baino gehiago, EAJ-PNV mugimendu politiko gisa agertu zen. Mugimendu horrek aske eta independente izan nahi zuen euskal gizartearen irudia adierazten zuen, non gizartearen nahiak biltzen ziren eta kolektibo eta gizarte-erakunde ugari lotzen zituen, euskotarrek emozionalki konektatuz. Bere militantzia sare kapilarrari esker, hainbat sektore sozial eta profesionaletatik etorritako pertsonekin, Alderdia gai zen Euskadiren beharrak entzun, ulertu eta bideratzeko, baita unerik gogorrenetan ere.

Adibide adierazgarri gisa Emakume Abertzale Batza aipa dezakegu. 1922an sortu eta Primo de Riveraren diktadura jasan ondoren, ezkutuko ekimenak sortzea ahalbidetu zuen, Ikastolak esate baterako, euskal hizkuntza eta kultura oso zapalduta zeuden egoera hartan. Ekimen horiek euskal nortasunaren biziraupena bermatzeaz gain, oinarri sendoa ezarri zuten etorkizunean autogobernu-eskaerak artikulatzeko.

Giza-ehun anitz, konprometitu eta bere bizitza profesional eta pertsonalaren zati bat kausa baten alde emateko prest dagoen honek, EAJ-PNVri aukera ematen zion euskal gizartearen beharrak hautemateko eta belaunaldi aldaketei aurrea hartzeko. Guztion onerako eta helburu kolektiboan mesedetan lan egiteko konpromisoa zegoen, eta horrek ahalbidetu zion EAJ-PNVri euskal gizartearen ordezkari gisa zuen zilegitasunari eustea, trantsizioaren ondoren etorri zen marko demokratiko berrian autogobernua garatzeko oinarri sendoa ezarriz.

Demokraziaren etorrerarekin batera, asmo historiko horietako asko forma hartzen hasi ziren. Erakunde propioak sortzeak, autogobernu-sistema sendoak eta Estatuaren esparruan euskal berezitasuna aitortzeak une erabakigarria markatu zuten. Euskal administrazioaren sorrerak aurreko kultura-erresistentziaren garaian sortu ziren lorpen asko sendotzea eta instituzionalizatzea ekarri zuen, hala nola EABk hasi zuen euskarazko hezkuntza. EAJ-PNV izan zen prozesu honen ardatz nagusia, gaur egun mendebaldeko munduan deszentralizazioari dagokionez aurreratuenetakoa izaten jarraitzen duen erakunde-esparru berri hori kudeatuz eta eratuz.

Hala ere, aldi berri horrek aldaketak ere ekarri zituen gizartearen eta politikaren arteko harremanean, demokraziaren bilakaerarekin alderdien eta herritarren arteko deskonexio mailakatua hasi baitzen, kausa kolektiboaren espiritua atzean utzita. ETAren terrorismoak eta talde armatuaren inguruan ziren alderdi politikoek gizartean sortzen zuten gaitzespen handiaren ondorioz, desafekzio politikoaren fenomeno hori geroago gertatu zen Euskadin. Hala ere, EAJ-PNVri ere eragin zion, mendebaldeko demokrazietako alderdi tradizionalen antz handiagoa hartzen hasi baitzen: kudeaketari heldu zion orduan, helburu kolektiboan mobilizazioari baino gehiago.

ETAren terrorismoaren amaieraren ondoren Euskadik bake garaia bizi arren eta egun ongizate-maila handia egon, egungo egoeran demokrazia liberalen krisi sistemikoa, hiru trantsizio handiei lotutako ziurgabetasuna eta populismoen gorakada ezaugarri dituen momentu historikoan kokatuta dago. Europako beste alderdi batzuek bezala, EAJ-PNVk erronka garrantzitsuei egin behar die aurre; besteak beste, gizartearen eraldaketaren ondorioz, euskal gizartearen nahiak biltzen zituen alderdiak mugimendu politiko izateari utzi dio, eta koadro-alderdi bihurtu da, erakundearen kudeaketari begira, helburu kolektibo handien mobilizazioari begira baino gehiago.

Izan ere, helburu kolektiboan mobilizazio hori erronka garrantzitsu bihurtu da, kontuan hartu beharreko hainbat elementurekin. Alde batetik, gaur egungo herritarren gero eta zati handiago batek berehalako eragina lehenesten du epe luzerako konpromisoaren gainera. Alderdi politikoetan afiliatu beharrean, pertsona askok unean uneko egoerei edo arrazoi espezifikoek lotutako mugimendu iragankorretan parte hartzea aukeratzen dute. Bestalde, gai sistemiko batzuei EAJ-PNVren baitan ez zaie behar besteko zentraltasunik eman, eta ekintza politikoaren funtsezko parte izan behar dute, hala nola feminismoa edo ekologismoa. Gai horiek ez dira gaur egungo eskariei erantzuteko bakarrik,

herrialde erresiliente eta oparo bat eraikitzeko epe luzeko erronkei aurre egiteko funtsezko zutabeak baitira.

EAJ-PNVrentzat, errealitate horrek proposamenak diseinatu beharra dakar, epe luzera begira eta herrialde erresiliente eta oparo bat eraikitzeko bidean, beste lehentasun sistemiko batzuk eta arrazoi koiunturalagoetan oinarrituta sortutako kezkak islatzeko gai izango direnak. Hori lortzeko, aliantza estrategikoak egin behar dira horiek babesten dituzten mugimenduekin. Bi norabideko komunikazio eraginkorra, entzute aktiboan eta elkarrekiko aitortzan oinarritua, gakoa izan daiteke kausa horiek proiektu politiko zabalago batean txertatzeko, norbanakoen kezkak helburu komun batekin lotuko dituen.

Testuinguru horretan, politika espazio dinamikoa eta plurala da, non pertsonak korrante askotarikatik eratorriko jarrerak nahasten dituzten, beren interesen arabera. Unean uneko eta malgutasunez parte hartzen dute kausa espezifikoen inguruan, "nahierara egindako politika" deitu den horretan. Eraldaketa horren ondorioz, alderdi politikoek aldaketa onartu eta gizarte aldakor batera egokitu behar dute, nortasuna eta ideologia galdu gabe, komunitatean funtsezko funtzio bat betetzen jarraitu nahi badute.

Gainera, sare sozialen erabilera eta gizartearen digitalizazioa elementu disruptibo izan dira politika eta gizartea elkarrekin lotzeko moduan. Plataforma digitalek parte-hartze politikorako bide tradizionalak (parlamentuak, elkarte gastronomikoak, batzokiak...) ordezkatu dituzte neurri handi batean, eta herritarrei gai publikoekin elkarreagiteko modu azkarragoak, individualizatuagoak eta puntualagoak eskaintzen dizkiete. Identitate politikoak hibridoago eta malguago bihurtu dira, eta norbanako bakoitzaren beharretara egokitu dira. Sare sozialek komunitate global eta kosmopolita berriak sortzea erraztu dute, balio komunak partekatzen dituzten arren, ohiko egitura politikoetatik aldentzen direnak, hala nola alderdi politikoetatik.

Gizartearen zatiketa hori erronka bat da EAJ-PNVrentzat; izan ere, beste eragile batzuek espazio berri horiei lotzen jakin duten eta narratiba indartzeko erabili dituzten bitartean, EAJ-PNVk bere estrategia birdefinitzeko beharrari aurre egin behar dio.

Euskal biztanleriaren parte-hartze sozial eta politikoaren paradigma-aldaketa horren jakitun izanik, tresna digitalak, inola ere ez bada modu bakarrean, beren diskurtsoa biziberritzeko eta belaunaldi berriekin konektatzeko aukera izan daitezke, kontakizun politikoarekin koherente izanik.

## 4.- EGUNGO DIAGNOSTIKOA

Dokumentu honen aurreko ataletan azaldu bezala, eskala globaleko iraultza batean murgilduta gaude gizarte gisa, eta horrek bizitzeko, lan egiteko, denbora kudeatzeko, sozializatzeko, harremanak izateko, bidaiatzeko, aisialdirako eta politika egiteko modua eraldatu du.

Trantsizio digitalek, ekologikoek eta sozioekonomikoek gizarte bat sortu dute, arrisku-gizarte edo gizarte likido gisa ezaugarrituta dagoena, ziurgabetasunak eta alternatiba anitzek markatuta dagoena, eta horiek ez dakarte nahitaez justizia edo ekitate handiagoa, parte-hartze soziala edo askatasuna.

Mundu zaharrak ez digu oraindik alde egin, eta mundu berria ez da jai; bien bitartean, globalizazioaren eta deslokalizazioaren desorekak eta transformazio digitalaren eragina, orain trantsizio berde izenez ezagutua, ongizate-estatuaren krisia eta munduan gero eta handiago den desberdintasuna epe laburrean konponduko ez diren egiturazko gaiak dira. Beraz, iturri horietatik edaten dute herritarrek politikarekiko duten mesfidantzak eta urruntzeak.

Herri libre bat bizitzeko eta osatzeko ideiarekin amesten badugu ere, ezkerreko zein eskuineko populismorik eta estremismorik ezagutuko ez duena, Euskadi ez da polarizatorik, krispaziorik eta neke politikorik ematen ez den oasi bat.

Globalizazioa, nazioarteko eraginak, deslokalizazioa, iraultza industrialak, digitalak eta ekonomikoak, trantsizio ekologikoa, nahitaez bete beharrekoa klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko, gaininformazioa eta, aldi berean, desinformazio-arriskua eta buloen eta gezurrezko albisteen ugaritzea, eta abar, faktore horiek guztiak erabakigarriak dira gizartea, oro har, eta euskal gizartea, bereziki, diagnostikatzeko eta ulertzeko. Fenomeno horiek guztiek gure bizitzeko, bizitza pertsonala eta profesionala kudeatzeko eta harremanak izateko modua irauli dute, eta euskal erakundeen eta EAJ-PNVren ekintza politikoa ere baldintzatu dute.

Izan ere, desafekzio politikoari buruzko pertzepzio subjektiboetatik harago, datuek sentimendu komunitarioarekiko desafekzio-hipotesi hori babesten dute. Hala, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 2024ko martxoko txostenak ("Euskal gizartea etorkizunaren aurrean") adierazten du inkesta egin zaien %61 ados zegoela esaldi honekin: "etorkizunean konfiantza izan behar da, azkenean gauzak ondo aterako dira". Hala ere, azterlan horretan bertan azpimarratzekoak dira honako hauekin ados ez dauden ehuneko urriak: "oraina sakrifikatu behar da etorkizunean hobeto bizitzea lortzeko" eta "etorkizuna hain da zalantzarria, hobe baita egunean bizitzea eta orainean pentsatzea".

EAEko herritarrek krisi iraunkorrean bizi diren sententzioa adierazi dute pandemiatik, eta klase politikoei eta erakundeei egozten die sententzio horren erantzukizuna, hautematen den dinamika negatiboa hausteko gai ez direlako. Horiek dira EAEko egoera eta ebaluazio soziopolitikoaren inguruan herritarrek duten pertzepzioari buruzko azterlan kualitatiboaren ondorioak. Azterlan hori 2024ko apirilean egin zen.

Ikuspegi sozioekonomikoan, euskotarrek bizitzaren kostuan, etxebizitza eskuratzeko zailtasunean eta lan-baldintza prekarioetan jartzen dute arreta. Eta, horren ondorioz, bizi-kalitatearen murrizketa islatzen dute.

Eremu soziopolitikoari dagokionez, EAEko herritarrek ez dute oso gustuko klase politikoa, eta, aldi berean, egoera politiko berria hauteman dute Euskadin. Ildo horretan, azterlan honetan inkestatutako pertsonak gaur egungo une soziopolitikoari buruzko etsipena adierazi dute. Aurreko azterlanean deskribatutako ziurgabetasun-emozioak frustraziorantz eboluzionatu du, eta frustrazio horrekin batera, neke- eta etsipen-sentimenduak agertu dira.

Azterketa kualitatibo honetatik ondorio bat atera daiteke, txosten honetan EAJ-PNVren jarduna aletzeko balio diguna: kolektiboaren parte garen aldetik baino, gure burua gizabanako gisa hautemateko joera nagusitu da. Horregatik egin behar da pertzepzio kolektibo horren lanketa, komunitate gisa hobetzeko, banakotik urruntzeko eta sentimendu eta emozio kolektiboak sustatzeko.

Gaur egungo egoera politikoa polarizazioan oinarrituta dago, eta gizarte-haustura baten aurrean gaude. Haustura horretan, sinesmenek eta emozioek gertakari objektibagarriek baino indar handiagoa hartu dute, eta ahots moderatuek eragina galdu dute talde sozialak eta klase politikoa elkarren artean komunikatzeko eragile izan beharko luketenean. Diskurtso polarizatzaileak ezartzen ditu gaiak, inposatu egiten ditu, agenda markatzen du eta eztabaida politiko lasaia bigarren mailan uzten du. Dezibelioen gudua da. Polarizazio-prozesu hori areagotu egin da erakunde demokratiko tradizionalak eta alderdi politiko tradizionalak XXI. mendeko erronkei erantzuteko duten ezintasunaren ondorioz.

Eta zer eginkizun dute sare sozialek fenomeno horretan? Harreman-paradigma berri horrek EAJ-PNVren jokabideaz besteko errealitateetara garamatza. Azken bost urteetan polarizazio politikoa nagusi izatea eragin dute, batetik, politikan ematen ari den zuzentasunik ezak, batez ere hizkeran; bestetik, mezuak sinplifikatu izanak, mundua gero eta konplexuagoa izan arren, eta horri lotuta komunikazio oso emozionalak, pertsonen emoziorik intimoenak azaleratzen dituenak; eta, azkenik, "post verdad" deitzen dugunaren sofistikazioak; hori guztia sare sozialek biralizatu eta zabaldu dutelarik.

Polarizazioa indartzeaz gain, sare sozialen bidez informatzeko ohiturak erretorika oldarkorra normalizatzen laguntzen du. Hala, gatazka emozionalak eta berariazko desinformazioak arazo politikoen konplexutasuna ezkutatu dute, eta sare sozialetako elkarrizketak toxikotasunez gainezka egotea eragin dute.

Eta aurreko guztia gorabehera, 2024ko martxoko euskal soziometroaren arabera, euskotarrek politikarekiko gero eta interes handiagoa dute, interes horrek gora egiten jarraitu du; izan ere, 2019an inkestatutako pertsonen %33k adierazi zuten politikarekiko interes handia edo oso handia zutela, eta 2024ko hasieran %38k zioten interes hori zutela. Interesa ez da murriztu, baina, desafekzioa gorabehera, politika kontsumitzeko modua aldatu egin da, batez ere gazteen artean.

Horregatik, txosten honek komunikazio politikoaren eta digitalizazioaren aldatetetan sakondu nahi du.

Sare sozialek eta plataforma digitaletan egin duten eraldaketarekin, politikaren hedapen mediatikoaren bilakaeran, aldi berean, komunikazio-estrategia sofistikatuagoak behar dira, edukia, unea eta transmititzeko kanal egokiena integratuko dituztenak.

Illo horretan, sare sozialek funtsezko zeregina dute komunikatzeko orduan, baina, batez ere, ekintza politikoa humanizatzeko eta emozioak transmititzeko orduan. Komunikazio politiko garaikideak mezu ugari eskaintzen ditu: informazio asko, interferentziak eta eragile politikoak. Baina, informazio asko dagoen arren, ez da handitu herritarrek gai politikoei buruz ematen duten arreta-denbora. Hori dela eta, garrantzitsua da komunikazio politikoaren eraginkortasuna, unea eta mezua atzemanaz.

Sozializazio eta komunikazio-tresna berriak esparru politiko-instituzionala zeharkatzen duten espazioak dira, non mezuak transmititzen diren dimentsio artistikoaren bidez (unea atzematea), irudien bidez (sare sozialek emozionaltasun handia ahalbidetzen dute) eta biografiara jotzen den (ingurunea, interesak eta afektua). Hori guztia kapital garrantzitsua da hautesleentzat.



Esan liteke irudiaren bidezko komunikazio politikoaren demokratizazioaren fenomenoaren aurrean gaudela. Atal honetan funtsezko alderdiak sartzen dira, hala nola janzkera aztertzea, estrategiaren pertsonalizazioa, arrazionaltasunera eta irrazionalera jotzea, besteak beste.

Digitalizazioari eta komunikazio politikoa eragin eta eraldatu duten beste tresna batzuei dagokienez, adimen artifiziala (AA) gai-zerrenda horretan dago. Datu-kantitate handiak prozesatzeko, ereduak identifikatzeko eta emaitzak aurreikusteko gaitasunak AA politikarako arma ahaltu bihurtzen du. Ez da berria, Barack Obamaren 2012ko kanpainan patrioiak eta joerak aztertzeko erabili baitzen. Hala ere, 2016an eztabaida etikoak sortu zituen Cambridge Analytics zerbitzuaren erabilerak. Zerbitzu horrek, AAren bidez, hautesleen datu masiboak aztertu zituen, segmentu bakoitzaren sinesmen eta emozioetara egokitutako eduki hiperespezifikoa sortzeko.

Adimen artifiziala eraginkortasunez eta etikoki txertatzea erronka bat da berez; horregatik, tresna horren alde egin behar da, boto-emaileei, iritzi publikoei eta joera politikoei buruzko informazio-bolumen handiak aztertzearen abantailak aprobetxatuz, bai eta estrategiak egokitzea ahalbidetzen duten patrioiak eta joerak identifikatuz ere, zalantzarik gabe, teknologia hori modu arduratsuan erabiltzeko printzipio etikoak sortuz. AA erabiltzeak onurak dakartzkio gizarteari, baina ezin du inola ere arriskuan jarri.

EAJ-PNVk Euskadiko aldaketa handien buru izan da: erakunde-garapena, industria-iraultza, gizarte-erakuntza. Gure bizitzeko, komunikatzeko, informatzeko, harremanak izateko, denbora kudeatzeko eta abarrerako modua asko aldatzen ari den honetan, EAJ-PNVk eraldaketa handia bere gain hartu behar du, horretan parte hartu eta gidatu egin behar du. Ezin gara atzean geratu.

Gizartea eboluzionatzen ari den aldi berean ari gara eboluzionatzen EAJ-PNV osatzen dugun emakume eta gizonok eta, horrekin batera, bai eta Alderdia ere. Funtsezkoa da aldaketei aurrea hartzea, ulertzea eta errespetatzea, haiek gutxietsi edo infantilizatu gabe. Horrela baino ezin izango diegu herritarrekiko loturei eutsi, herritarrak ordezkatzeko jarraitu, eta prest egon Herri honek behar dituen eraldaketa handiei erantzuteko eta haien buru izateko.

## **5.- ESTRATEGIAK SOSTENGU DITUEN PRINTZIBIO ETA OINARRI POLITIKOAK**

EAJ-PNVk bere ekintza politiko eta soziala diseinatu, garatu eta gauzatu behar du, komunitatea erabaki politikoaren ardatz bihurtuko duen ikuspegi integral batean, balio etiko argi eta gaur egungoetan oinarrituta eta berrikuntza politikoan sostengatuta (lankidetzarako gobernantza, gardentasuna, teknologia digitalaren erabilera), aldaketa sozialei erantzuteko eragile gisa, betiere herritarrekiko harremanean funtsaren eta formaren arteko koherentzia bermatuz.

## 1. Balore etikoak, argiak eta egungoak

**Auzolana** (Lan komunitarioa): EAJ-PNVk alderdi batua izan behar du, koordinatua eta konpromisodun pertsonen osatua, eta lankidetzaren eta lidergoaren banatzea hori izango da bere ekintzaren ardatza.

**Aniztasuna eta Bizikidetzaren** (Elkarbizitza): desberdintasuna aitortuz eta desberdintasun guztiak bat eginik. EAJ-PNVk Euskadin ematen den aniztasuna jaso eta islatu behar du eta diskriminazio ororen kontra borrokatu.

**Berdintasuna:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna transbertsala izan behar da EAJ-PNVren funtsa, eta ekintza guztietan hauteman behar da.

**Nortasuna/Abertzaletasuna** (Euskal nazionalismoa): Euskal nortasun nazionala harrotasunez defendatu eta hedatzea, ahalegin berezia eginez euskara gure herriaren berezko hizkuntza eta hizkuntza identifikatzaile gisa defendatu eta sustatzeko.

Alderdi abertzaleen elkarrekin eta beste alderdi politikoekin zubi-lana egin, eurekin elkarrekiko ikuspegia partekatzeko.

**Kidetasunaz harro egotea:** konplexurik gabeko harrotasuna erakustea lorpenengatik eta hobetu daitezkeen arloak egon daudela aitortzea, aukera zuzena izan nahi izatearen apaltasunetik.

**Enpatia:** gizarteko pertsona guztiak errespetatu eta haiekin enpatizatzea, beharrak islatu eta ziurgabetasunei erantzun ahal izateko.

**Elkartasuna eta justizia soziala:** gizarte bidezkoago eta kohesionatuago baten alde lan egitea, berdintasunaren ulermentetik eta desabantaila-egoeran dauden pertsona edo taldeekiko elkartasunetik abiatuta.

## 2. Berrikuntza politikoa

**Partaidetza:** eredu berriekin bat etorritik, EAJ-PNVk erabakiak hurbiltasunetik, irekitasunetik eta bikaintasunetik aberastuko dituzten parte-hartze ereduak txertatu behar ditu. Lankidetzarako gobernantza sistemen eta antolatutako gizartearekin eta sozietate zibilararekin duen harremana sendotzearen aldeko apustu irmo eta argia egin behar du.

**Gardentasuna eta kontuak ematea:** politikarekiko eta erakundeekiko konfiantzarik ezaren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa da herritarrei kontuak ematea modu gardenean, egituratuan eta lasaian. Konfiantza sortuko da jarrera negatiboak iraultzean.

**Digitalizazioa:** EAJ-PNV ezin da paradigma global berritik kanpo geratu, eta digitalizazioak, orain arte ez bezala, lekua hartu behar du alderdiaren errealitate politikoan, sozialean eta harremanetakoan.

## 3. Aldaketa sozialetara egokitzea

**Sinesgarritasuna eta aurrerapena:** talde-lidergoaren bidez, pertsona fidagarrien eta aldi berean enpatikoen bidez, EAJk sinesgarritasuna eta aurrerapena erakusten jarraitu behar du.

**Erresilientzia:** egoera txarretara egokitzen den eta egungo erronkei erantzuteko behar adinako indarra duen erakundea izatea.

**Moldagarritasuna eta koherentzia ideologikoa:** malgutasuna eta gizartearen premia aldakorretara egokitzeko gaitasuna erakustea, baina horrek ez du eragozten koherentzia ideologikoa bermatzea epe luzerako begiradaren bidez eta herrialde erresiliente eta oparoa eraikitzea, EAJ-PNVren ekintza politiko osoaren lotura gisa.

**Politika humanista:** lotura emozionaletik politika egitea, lidergoan profesionaltasuna erakutsiz, baina pertsonak ekintza eta erabaki bakoitzaren erdigunean jarriz. Humanismoak zeharkatutako politika, pertsonen bidez eta pertsonentzat diseinatua eta gauzatua.

**Erakundeen politika:** neutraltasuna gainditzea eta erakundeetatik politika modu aktiboan egitea.

#### 4. Harremanak eta Komunikazioa/Hartu emana

**Taldean eta balioetan oinarritutako lidergoa:** talde-lidergoa sustatzea, balioekin lotutako pertsona enpatikoekin, EAJ-PNVren proiektuari balioa gehituko dioten erreferenteak batuz.

**Buru batzarren hurbiltasuna:** erreferentziazko eragileak izanik, errespetuan, miresmenean, entzutean eta ikaskuntza partekatuan oinarritutako harremanak sustatzen dituzten buru batzarren hurbiltasuna erakustea eta balioestea.

**Komunikazioaren bizkortasuna:** egoera sozial, ekonomiko eta politikoei erantzun bizkorrak ematea, mezuaren mamia egungo komunikazio-beharretara egokituz eta populismoaren aurrean komunikazio eraginkorra azpimarratuz.

**Komunikazio emozionala:** komunikazioak enpatia eta hurbiltasuna erakutsi behar ditu, eta EAJ-PNVk politika humanistak emozioak txertatu behar ditu komunikazio politikoan, funtsa bere forma egokian irits dadin.

## **6.- EAJ-PNV-K BETE BEHARREKO HELBURU ETA JARDUERA ESTRATEGIKOAK**

### Balio etikoak, argiak eta egungoak

#### **1. Auzolana**

- 1.1. Errealitate bakoitzean (herriak, hiriak, auzoak) tokian tokiko eta norbanako mailara EAJ-PNVk eraman dituen elkarlan eta lidergo partekatuzko estrategiak abian jartzea, mailaka bada ere.

ZIRRI BORROA

## **2. Aniztasuna eta bizikidetz**

- 2.1. Alderdiaren eta Euskadiren aniztasuna sustatzea, ikuspegi, esperientzia eta ezagutza anitzak aitortzeak eta balioesteak eurekin dakarten balio erantsia islatzeko mezu positiboak sortuz.
- 2.2. Profil eta mezuetan aniztasuna sustatzea.
- 2.3. Ideologian eta identitate politikoan trebatzeko programak diseinatzea.
- 2.4. Gizartearen eskariei erantzuteko moduko talentua eta profil berriak biltzea, estrategia aktiboen bidez. Alderdikideez haraindi ere, horiek atzemateko estrategia aktiboak barneratzea, kanpoko ahotsei espazioak irekiz.
- 2.5. Aniztasun-politika transbertsalak diseinatzea, gizartea bere osotasunean ordezkatu dutenak.
- 2.6. Kulturen eta belaunaldien arteko elkarrizketaren gidaritza izatea: kultura eta jatorri ezberdinetako pertsonen arteko elkarrizketa- eta topaketa-espazioak sustatzea.
- 2.7. Alderdiaren proiektu politikoa eta historia pertsona migratzaileei azaltzea, irekitasuna erakutsiz eta inklusioa sustatuz.
- 2.8. Edozein diskriminazio-motaren aurka gogor egitea eta aukera-berdintasuna sustatzea.

## **3. Berdintasuna**

- 3.1. Berdintasuna EAJ-PNVren politika guztien elementu transbertsala dela bermatzea.
- 3.2. Kolektibo feministekin lan egitea eta haiekin elkarlanean aritzea.
- 3.3. Alderdiaren maila guztietan berdintasunezko diskurtsoa sustatzea, berdintasunetik lan egiten dela bermatuz.

## **4. Nortasuna/Abertzaletasuna**

- 4.1. Euskal nazio-nortasuna harrotasunez eta erakusteko eta transmititzeko asmoarekin defendatzea eta zabaltzea, EAJ-PNVren ekintzak eta narratibak oinarri hori dutela ziurtatuz.
- 4.2. Abertzaleen idearioa finkatzea, gaur egungo estilo argi eta hurbilarekin. Harrotasun kolektiboz komunikatzea, benetakotasunetik.
- 4.3. Euskararen inguruko politika publikoen garapena indartzea eta jasaten ari den erasoei koordinatuta eta irmo aurre egitea.
- 4.4. Euskararen erabilera barne-espazio gehiagotan sustatzea.

- 4.5. Estilo abertzale, euskaldun eta jatorra erakundeen ordezkartzan agertzea, abertzale direla erakusteko agerpen eta iritzien bidez, EAJ-PNVko kide direla erakutsiz.

## 5. Izatearen harrotasuna

- 5.1. Lortutakoak ematen digun harrotasuna adieraztea eta komunikatzea, konplexurik gabe, behar denean kanal ugari baliatuz. Hobetu beharreko arloak ere aitortzea, barruko eta kanpoko mezuak indartuz.
- 5.2. Egokitzea eta aldaketak harrotasunez eta ziurtasunez komunikatzea, baita zoritxarreko egoeretan eta konfrontazio politiko handiko egoeretan ere.

## 6. Enpatia

- 6.1. Enpatiatik lan egiten eta komunikatzen ikasteko espazioak sortzea.
- 6.2. Politikaren hizkera berreskuratzea: interes orokorraren aldeko kontakizuna sortzea. Hunkituko duen diskurtsoa, koherentziaz eta zentzuz.
- 6.3. Trebetasunak lantzea: arreta ematea, entzutea, indartzea eta laguntzea.
- 6.4. EAJ-PNVren balioak nabarmentzea, errespetuan, miresmenean, entzutean eta elkarren arteko ikaskuntzan oinarritutako harremanak sustatzen baitituzte.

## 7. Elkartasuna eta justizia soziala

- 7.1. Politika publiko solidarioak lantzea, gero eta gizarte kohesionatuagoa eta bidezkoagoa sortzeko helburuarekin.
- 7.2. Gorrotoaren diskurtsoei asertibotasunez aurre egitea eta gizarte askotariko eta inklusiboek duten balio erantsia nabarmentzea.

## Berrikuntza politikoa

### 1. Parte-hartzea

- 1.1. Bai EAJ-PNVren ekintza politikotik, bai alderdiak gobernatzen duen espazioetan, beharrezkoa izango da herritarren ahotsak barne hartuko dituzten parte-hartze estrategiak diseinatzea. Funtsezkoa da hurbiltasuna, irekitasuna eta bikaintasuna erakustea.
- 1.2. Benetako parte-hartze prozesuak inplementatzea. Politikagintza bertikalaren ordeztu, horizontala ezartzea. Pertsonen bidez gobernatzea, ez haien gainetik.

## **2. Gizarte eragileekiko lotura inklusiboa**

- 2.1. Hainbat eragilerekin (herritarrak, elkarteak, sektore pribatua eta hezkuntza) harremanak finkatzea (edo, hala badagokio, ezartzea), benetako eta probetxuzko entzute baten bidez, eta harremanak pertsonalizatzeari garrantzi berezia emanez.
- 2.2. Gaur egun gorabidean dauden agendak ordezkatzeko dituzten eragileekin komunikazio-kanalak ezartzea, entzute aktiboari eutsiz, haien ahotsak epe luzerako estrategian sartzeko gai izan gaitezten.
- 2.3. Eragile horiei proposamenak egitea, entzute aktiboaren bidez.
- 2.4. Ordezkaritza instituzionaletik, harreman hori erraztuko duten egiturak proposatzea eta lantzea.
- 2.5. Intelektualak eta eragile erabakitzailak erakartzea, EAJren proiektuari balio erantsia emango dioten eragile eta erreferenteekin konektatuz.
- 2.6. Alderdikideak (batzokiak) gizarte-dinamiketan inplikatzeko. Herri-ekitaldietan parte hartzea, gainbeheran dauden tokiko ekimenak berreskuratzea, eta ongintzako helburuak dituzten jarduerak antolatzea, tokiko elkarten bidez.
- 2.7. Herri-ekimenetan parte hartzea eta elkarte, merkataritza eta talde esanguratsuekin ohiko harremanak izatea.

## **3. Gardentasuna eta kontu ematea**

- 3.1. Erabakiak hartzeko prozesu guztietan kontuak ematea ezinbesteko baldintza izan behar da, bai EAJ-PNVren barne prozesuetan bai gobernuan dagoen tokietan, batez ere gardentasunik ezak dakarren zaratak desinformazioa eta fake-news delakoak areagotzen dituen horietan.

## **4. Digitalizazioa**

- 4.1. EAJ-PNVren konexio digitala bermatzeko estrategia bat garatzea, gizartean erabiltzen diren tresna komunikatiboak ondo erabiltzen direla bermatzeko.
- 4.2. Politikagintza esparru digitaletik egiteko modu berriak ulertzea eta atzematea, adimen artifizialak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz eta kudeaketa EAJ-PNVtik eta gobernatzen den erakundeetatik formatu dinamikoagoetara eta erraztaileagoetara egokituz.
- 4.3. Teknologia berrietan sartzeko eta horiek erabiltzeko, bai Alderdiaren eguneroko funtzionamendurako, bai hauteskunde-prozesuetarako, kanpainetarako, zundaketetarako...
- 4.4. Digitalizazioaren alde egitea, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak erabiliz.

- 4.5. Zuzendaritza-organoetan aditu digitalak sartzea eta Alderdiaren maila guztietan kultura digitala sustatzea.
- 4.6. Alderdiaren barruan lantalde profesionalak eratzea, sare sozialak eta antzeko gaiak behar den ezagutzarekin eta profesionalki kudeatuko dituztenak.
- 4.7. Herritarrekiko harremana formatu digitaletara egokitzea, herritarrok egiten dugun erabileraren arabera.
- 4.8. Big Data erabiltzea, datu pertsonalen esparru etiko eta juridikoa betez, kanpainak segmentatzeko, sare sozialetako iritzi publikoa aztertzeko, kanpainetako baliabideak optimizatzeko, estrategiak egokitzeke eta datuetan oinarritutako politikak formulatu eta ebaluatzeko.

## **Gizarte-aldaketetara egokitzea**

### **1. Sinesgarritasuna eta aurre hartzea**

- 1.1. Plan argi bat izatea eta gizartearen kezkei aurrea hartzea, arazoak eraginkortasunez konpontzeko.
- 1.2. Talde-lidergoa sustatzea, pertsona fidagarriekin, baina, aldi berean, enpatikoekin, arazoekin konektatuta daudenekin.
- 1.3. Ikasteko guneak sortzea, etorkizuneko egoera edo erronken aurrean behar diren ezagutzak lantzeko.

### **2. Erresilientzia**

- 2.1. Egoera txarren aurrean errekupeazio prozesuei buruzko azalpenak ematea, EAJ-PNVren sinesgarritasuna eta errekupeatzeko gaitasuna erakutsiz.
- 2.2. Batasun-irudia ematea, taldea garela erakustea, batasunaren sendotasuna erakutsiz eta herritarrei ziurtasuna emanez.
- 2.3. Batzokiak garbi eta itxura onarekin egon daitezela, informazio-gune gaurkotu eta agerikoekin. Batzokien itxurari eustea: pintadak, Ikurrina fatxadan, bertan mugimendua, etab.
- 2.4. Batzokiak “erakusleiho” direla aprobetxatzeko euskarriak. Datuak, mezuak... Adibidez, pantaila jartzerik balego, herriko proiektuez gain tokian tokiko aldunditik, Jaurlaritzatik edo Alderditik eman ditzakegun datuak, mezuak edo proiektuak ezagutzera ematea.



### **3. Moldagarritasuna eta koherentzia ideologikoa**

- 3.1. Estrategia koherenteak diseinatzea, baina tokian tokiko errealitateetara egokitzeko modukoak. Harreman erduetan berrikuntza eta esperimentaziorako espazioak sortzea.
- 3.2. Alderdiaren efemerideak berrikusi eta gure egungo balioekin zerikusia duten beste batzuk sortu.

### **4. Politika humanista**

- 4.1. Diskurtso emozional eta enpatikoa: Enpatiarekin lan egitea, herritarrekin alderdi emozionalean konektatzeko gai izanez, lidergoan profesionaltasuna erakutsiz, baina pertsonak ekintza eta erabaki bakoitzaren erdigunean jarriz. Humanismoak politika osoa hartu behar du, pertsonak, pertsonen bitartez eta pertsonentzat diseinatua eta gauzatua.
- 4.2. Arduraren ikuspegia: gaitasuna, ardura, helburu horrekin erantzutea: arazoak aitortzea.
- 4.3. Irudi hurbila eta apala proiektatzea: itxurak, janzkera eta jarrerak.

### **5. Politika erakundeetatik**

- 5.1. Neutraltasuna gainditu eta erakundeetatik politika aktiboa egin.
- 5.2. Herritar guztiak ordezkatzeko dituzten hautetsi garen aldetik jokatzeko, baina gure ikuspegi politikoari uko egin gabe.

## **Harremanak eta komunikazioa**

### **1. Taldean eta balioetan oinarritutako lidergoa**

- 1.1. Talde-lidergoa sustatzea, pertsona enpatikoekin, belaunaldi ezberdinen arazoak ezagutuko dituztenak, eraginkortasunez komunikatuko dutenak.
- 1.2. Beren belaunaldiko lagunak erakartzeko gaitasuna duten lider gazteak goratzea.
- 1.3. Sinesgarritasuna, hurbiltasuna eta enpatia uztartuko dituen lidergoa sustatzea. Ziurgabetasun egoeteran sinesgarritasuna erakustea, herritarren beldurraren eta segurtasunik ezaren aurrean lidergo lagunkoia, hurbila eta gardena sustatuz.
- 1.4. Gizartearen lidergo erreferentea eta adierazgarria bultzatzea.
- 1.5. Arazoak gatazka bihurtu aurretik konpontzea, herritarrekiko autoritatea eta konpromisoa proiektatuz. Estiloan lidergoa eta gertutasuna erakutsiz.

## **2. Buru batzarren hurbiltasuna**

- 2.1. Ohiko komunikazio bideak ezartzea, hala nola foroak edo topaketak, alderdikideekin, alderdizaleekin eta, oro har, herritarrekin komunikatzeko, haien iritziak entzuteko
- 2.2. Batzokien funtzionaltasuna eta itxura hobetzea, elkargune abegitsu bihurtzeko.
- 2.3. Alderdiaren jarraitzaileekin eta gertuko pertsonekin laguntza-sareak antolatzea, udal-zerrendak eta beste jarduera politiko batzuk egiteko orduan beren ikuspegia eman dezaten.
- 2.4. Erreferente diren pertsonekin harremanetan egotea, zerrendak egiteko edo beste arrazoi batzuetarako. Ekintza politikorako zirkulu zentrokideetan lehena osatzen baitute.
- 2.5. Herri-jardueretan naturaltasunez parte hartzea, ahal den neurrian parte-hartze ofiziala edo protokolozkoa saihestuz.
- 2.6. Batzokiak zentro abegitsu eta funtzional gisa aktibatzea. Harremanak areagotzea tokiko elkarte estrategikoekin, merkatariekin eta kolektiboekin.
- 2.7. Laguntza-sareak sortzea alderdizaleekin eta alderdikide izan ez arren laguntzeko prest dauden lagunekin.

## **3. Bizkortasuna komunikazioan**

- 3.1. Komunikatzeko orduan ez ezik, ohiko komunikabide publiko eta pribatuetan EAJ-PNVk komunikazioa kudeatzeko duen moduz hausnartzea eta modu hori iraultzea, EAJ-PNV eragile erabakitzailerik den espazioak ere berrikusiz.
- 3.2. Mezuaren eta ekintza politikoaren funtsa egungo komunikazio-beharretara egokituko duten komunikazio-estrategiak diseinatzea.
- 3.3. Ente publikoak gizartearen aniztasuna islatzen duela bermatzea, tresna politiko bihurtu gabe, baina Alderdiaren interes legitimoetatik aldendu gabe.
- 3.4. Sare sozialen bidez komunikatzeko eta Alderdi barruko kanal digital guztiak antolatzeko trebatze-saioak.
- 3.5. Hizkuntza bizia, zuzena eta eguneratua erabiltzea, tonu instituzional zurrun eta estuak saihestuz.
- 3.6. Komunikazioa berehalakotasun-eskakizunetara egokitzea, erabakietan sakontasunari eutsiz, baina mezuaren sinpletasuna zainduz.
- 3.7. Populismoari eraginkortasunez erantzutea, komunikazio azkar, sistematiko, hurbil eta ulergarri baten bidez.

- 3.8. Komunikazioan arriskuak hartzen ikastea, kutsu politikoa igoz, erreferentzialtasuna bilatuz eta diskurtso makur eta erabat diplomatikoetatik ateraz.
- 3.9. Osasuna, etxebizitza eta segurtasuna bezalako gai garrantzitsuen inguruan jarrera argia izatea. Mezu sinple eta zuzenak erabiltzea demokrazia konplexuei heltzeko.
- 3.10. Target-a pertsonalizatu eta segmentatu, mezu espezifikoak diseinatzuz, horrela komunikazioaren garrantzia eta eraginkortasuna handituz.

#### **4. Komunikazio politiko emozionala**

- 4.1. Alderdiak Euskadiko bizitza sozialean duen presentzia areagotzea, pertsona ikusgarri eta ezagunekin.
- 4.2. Komunikazio politikoan emozioak txertatzea, datuen zorroztasun zientifikoari eutsiz, baina enpatiatik komunikatuz.
- 4.3. Kontakizun emozionala lantzea, interes batzuei erantzunez eraikitako estereotipoek eragindako kritika negatiboen aurrean.
- 4.4. Berrespen-emozioetan oinarritutako lidergo adierazkorra proiektatzea, honako hauek nabarmenduz: identitate kolektiboa (batasuna diluitu gabe), asmo politikoak, lorpen konparatiboak eta Alderdiarekiko harrotasuna eta konfiantza.
- 4.5. Ilusioa sortzen duten proposamen positiboak eta mezu motibatzaileak lehenestea. Alderdia aldaketa konstruktibo eta fidagarriko eragile gisa aurkeztea. Ilusioa sortzen duten, lehiakortasun politikoa indartzen duten eta harrotasun kolektiboa transmititzen duten mezu eraikitzaileak proiektatzea. Politika emozioa da.
- 4.6. Politika irudiaren bidez humanizatzea: espazio arrunt, ohiko eta sozialaren publizitateak lidergoa eraikitzen laguntzen du, benetakotasuna eta sentsibilitatea bezalako balioak eskatzen dituelako.

### **7.- ONDORIOAK**

EAJ-PNV funtsezko eragile politikoa izan da bere historian zehar, ez bakarrik aberrigintzan eta herrigintzan, gure erakundeen sorreran, baizik eta baita Euskadiko aldarrikapen sozial, laboral, politiko, kultural eta abarren bultzatzaile gisa ere; masa-mobilizatzaile, iruditeria kolektibo abertzalearen sustatzaile, Euzko Alderdi Jeltzalea.

Gaur egungo egoeran, ETA gabe, COVID-19aren pandemiak ekarri zuen krisitik atera garela, herritarrentzat horrek eragin zituen estres sozial eta ekonomikoarekin eta osasun mentaleko arazoekin, Euskadiko gizarte-ongizateko maila ona berreskuratu ahal izan dugula, datu

sozioekonomikoak, enpleguak eta abar hobetuta, aurrera egiteko unea eta EAJ-PNVren partaidetza- eta harreman-eredua berreraikitzeke unea da, euskal gizartean eta euskal gizartearen eskutik.

Barne-hausnarketak planteatu den gai honi buruzko hipotesi batzuk planteatzera eraman gaitu. Alde batetik, sentitzen dugu aniztasun soziala islatzen eta errespetatzen duen Alderdia garelako, baina ez dugu hori gure ekitaldian, efemerideetan eta harreman sozialetan erakusten. Euskal gizarteak bilakaera izan du. Aldatu egin dira gure arteko harremanak izateko modua, mugitzeko modua, aisialdia eta lana kudeatzeko modua, familiak osatzeko modua, sozializatzeko, informatzeko eta politika egiteko modua. Baina gizartearen lehentasunak ere aldatu dira, eta EAJ-PNVk ez du horiek irakurtzen jakin, eta, batzuetan, baliogabetze emozionala ere eman da gure aldetik, erreklamazioei garrantzia kenduz eta infantilizatuz.

Testuinguru horretan, bi helburu planteatzen dira EAJ-PNVrentzat. Bi jomuga, bi erronka Euskadin zentraltasuna eta lidergoa berreskuratzeko. Alde batetik, euskal gizarteak Alderdiaren zereginean jarri duen konfiantza suspertu behar dugu. Horretarako, gizartearekiko harremana areagotu beharko dugu, interesen ordezkariak hobetu, eredu erlazionalak egokitu eta trantsizio digitalari behingoz heldu, kanal anitzeko harreman sendo baterantz bira eginez. Bestalde, EAJ-PNVk, gizarte-, ekonomia- eta belaunaldi-arloko zeharkako alderdi gisa, Euskadiren eta identitatearen barruko zentraltasuna berreskuratu behar du.

Asmo handiko helburuak dira, bai, baina lorgarriak. Eta, hain zuzen ere, hala planteatu behar dira. Dagoeneko ez du zentzurik besoak gurutzatuta geratzeak; iraganeko denborek ez dute zertan hobeak izan, desberdinak dira. Euskal gizarteak gizarte-arloan egin du aurrera, arlo digitalean. Trantsizio hori EAJ-PNVren funtsean eta forman ere aplikatzeko unea iritsi da.

Jardunbide berri bat sustatzeko neurriak planteatzen ditugu, baloreetan oinarritua, egungo baloreak, etikoak eta argiak, jardura politikoan berrituz eta gizarte osoa ordezkatzeko gai izanez. Entzun, errespetatu, partekatu eta bizi proiektua eraikitzeke bidean laguntzea izango da Alderdiaren zeregin nagusia.

Konplexuak gainera kentzeko unea iritsi da, eta premiazkoa da harreman-eredu berriak sustatzea, bai analogikoak, bai digitalak. Komunikazio politikoa eraldatu egin da, mezuak eta kanalak eraldatu egin diren modu berean; garaiz gaude arlo horretan ere profesionalizatzeko, hazteko eta aurrera egin ahal izateko.

Trantsizio politiko eta estrategiko horren guztiaren barruan ekintza eta mugimendu guztiak definitzea lortu ez arren, EAJ-PNVk, giza kapital transbertsal den aldetik, bere gain har dezake eta hartu behar du lidergo partekatua eta horizontala, euskal gizarteak eskatzen duen bezala, dagokion zentralitateaz jabetzeko. Ebaluatu, erantzun eta politika egiteko eta gizartean harremanak izateko dugun modua irauli behar dira. EAJ-PNV izango da, izan behar da, entzute, enpatia, elkartasunaren eta errespetuaren eredu.